



ALKATETZAREN DEKRETUA

EZTITXU MUJIKA MARIEZKURRENA, ZALDIBIAKO UDALEKO ALKATEAK, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK,

ZALDIBIAKO udaleko Kultur zinegotziak proposatu du 2021 urtean, kultur eta kirol proiektuak eta programak gauzatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.

Oinarriak honela esaten dute:

2021 urtean, kultur eta kirol proiektuak eta programak gauzatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak.

1. Aurrekariak

Oinarri hauek onartzen dira ZALDIBIAKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKORRAren baitan.

2 Xedea.

Deialdi honen helburua da, 2021. urtean zehar Zaldibiako irabazi asmorik gabeko kultur erakundeei beraien kultur proiektuen eta urteko programen garapena finantzatzera zuzendutako dirulaguntzen emakida baldintzak arautzea.

Kultur ekimenak garatzea lagunduko da diruz, eta horretarako, honako baldintza hauek bete behar dituzte interesa duten erakundeek: Zaldibiako Udalak egiten dituen ekimenen osagarri izatea edo haiek ordezkatzeta, edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak izatea, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak. Bere izaera eta helburuak direla eta udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenen eskaerak, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko dira eta horren berri emango zaio interesatuari.

2. Onuradunak.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute, bere kultur jarduerak deialdi honetan zehaztu den arloan garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde nahiz pertsonak, beti ere bere jardun eremua Zaldibian badago.

Onuradunek beti ere, Zaldibiako udaleko dirulaguntza ematea arautzen duen ordenantza orokorrak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte, hain zuzen:



- Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza egitea edo diru laguntza emateko zio den jokabideari eustea.
- Diru laguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta diru laguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.
- Diru laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.
- Diru laguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana.
- Diru laguntza emateko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, norgehiagoka kasuetan edo gainerakoetan, erabakitze proposamena egin baino lehen, egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, eta gainerakoekin, eta eskatzailearen nortasuna egiaztatzea. Izaera juridiko zehatzik ez duten taldeetan, elkarte edo antzekoetan baldintza hau egiaztatu beharko da taldea ordeztzen duen pertsonaren zinpeko aitortzearen bidez eta aitortuko du ez duela zorrik administrazioarekin. Egiaztatze hau loturik dago, gainera diru laguntza arautzen duten gainerako arauekin.
- Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea diru laguntza eman ondorengo lau urteetan.
- Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko.
- Jasotako fondoak itzultzea, itzulketa espediente bat ematen denean.

3. *Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa.*

Eskariak Zaldibiako Udaleko Kultura Departamenduan edo Hiritarren Harrerako Bulegoan aurkeztu daitezke, oinarri hauetan ageri diren eskari-orrietan. Eskariak, diru-laguntza deialdi hau Zaldibiako udaleko web orrian argitaratu eta 30 eguneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Era berean, eskaerak digitalki aurkeztuko dira zaldibia.eus web orrian dagoen plataformaren bitartez.

Eskariak Kultura Departamenduan tramitatuko dira.

a) Eskaria.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Dirulaguntza eskari normalizatua (I. Eranskina).
- Ekintzei buruzko fitxak (II. Eranskina).
- Eskatzailearen NAren kopia.
- Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia (edo NAren kopia, hala badagokio).
- Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundearen Erregistroa izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen estatutuak eta curriculum: Kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.



ZALDIBIAKO
UDALA

2021IDOO0002

— Eskatzaileak zabaldutako kontu korrente baten jabe dela erakusten duen agiria banku edo aurrezki kutxa batek emandakoa, araututako ereduaren arabera (III. Eranskina).

— Bestelako erakunde, organismo eta abarri dirulaguntzak lortzeko egindako eskaeren aitortpena, edota, halakorik balego, jasotzen dituzten dirulaguntzaren aitortpena (IV Eranskina).

— Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen zinpeko aitortpena (V. Eranskina).

— Elkarrekin ez duela bazterketarik egiten adierazten duen agiria (VI. Eranskina).

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Zaldibiako Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

b) Likidazioa.

2022ko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharreko dokumentazioa, urteko dirulaguntzak kitatu ahal izateko.

- Jardueraren azalpen-memoria.
- Gauzaturiko kontzeptuengatikoko gastu eta sarreraren likidazioa eta, halaber, azkenean lortutako emaitza.
- Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak, edota fotokopia konpultsatuak, egindako gastuaren egiaztagarri.

Memoriak jasoko ditu diru laguntza eman zeneko helburua bete dela egiaztatzeko beharrezko alderdi guztiak.

Datuak diruz lagundutako jarduerari buruzkoak izango dira, entitate baten jarduera orokorra diruz laguntzen denean izan ezik. Kasu horretan, pertsona onuradunak urteko memoria aurkeztuko du, horretara behartuta dagoenean, eta merkataritza legeriak ezarritako agiriok: Balantzea, galera eta irabazien kontua, memoria eta azken honetan jasotako funtsen aplikazioa.

4. Eskariak baloratzeko irizpideak.

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, erakundeek ondoren adieraziko diren irizpide eta baremoekin bat etorriko den puntuazioa lortu beharko dute:

a) Proposatutako programaren ezaugarriak: 40 puntu gehienez ere, ondorengo aspektuak kontuan izanik:

- a.1) Programak kulturari eta kirolari egiten dion ekarpena.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA1A2FC.XheT>



ZALDIBIAKO
UDALA

2021IDOO0002

- a.2) Aurrera eramango den programaren hartzaileak, beste erakunde, herritar nahiz kultur eragileren inplikazio maila.
- a.3) Proposatutako programaren ibilbidea eta finkatzea.
- a.4) Ekintza horrek erdiguneaz gain auzoetan eragina izatea.
- a.5) Egitarauen berrikuntzak eta egitarau berriak txertatzea.
- a.6) Proposatutako jardueretan kanpoko jatorria dutenen parte-hartzea bultzatzeko bideak martxan jartzea.

b) Erakundearen irimotasuna eta ezaugarriak: 40 puntu gehienez ere, ondorengo aspektuak kontuan izanik:

- b.1) Udalaren ekimenetan parte hartzea.
- b.2) Erakunde eskatzailearen dedikazioa eta duen giza taldea.
- b.3) Urtean zehar antolatzen dituen ekintzak.

c) Erakundearen finantza baliabideak; 20 puntu.

Edonola ere, eskatzaileek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte, programa honetan jasotako dirulaguntzak eskuratu ahal izateko.

Dirulaguntza honela bananduko da:

- 50 puntutik 59 puntura eskatutako dirulaguntzaren %60 arte.
- 60 puntutik 69 puntura eskatutako dirulaguntzaren %70 arte.
- 70 puntutik 79 puntura eskatutako dirulaguntzaren %80 arte.
- 80 puntutik 89 puntura eskatutako dirulaguntzaren %90 arte
- 90 puntutik 100 puntura eskatutako dirulaguntzaren %95 arte

Nolanahi ere, aurreko irizpideetan baloratu ez diren bestelako herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera izango da.

5. *Aurkeztutako eskaeren akatsak zuzendu.*

Aurkeztutako eskaerak akatsak izanez gero, eskatzaileari jakinaraziko zaio eta 10 eguneko epean zuzendu beharko ditu. Hori egin ezean, eskaera aurkeztu duenak atzera egin duela ulertuko da.

7. *Aurrekontua.*

Programa honen helburu diren dirulaguntzetarako esleitutako zenbatekoa 14.500 €koa da eta Kultura Dirulaguntzak deritzon -480.334.00.01- zenbakidun partidaren kontura finantzatuko da.

Zenbateko hori handitu ahali zango da, Udal Aurrekontuaren Gauzatze Oinarrietan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

8. *Onuradunen betebeharrak espezifikatu.*

Diru-laguntzen onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA1A2FC.XheT>



ZALDIBIAKO
UDALA

2021IDOO0002

- Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri Udalari jakinarazi beharko dio,
- Udalan jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribaturik jaso direla xede bereko diru-laguntzak diru-sarrerak edo baliabideak.
- Erakundeak antolatzen dituen jarduera guztietan hizkuntza eta irudi ez sexitak erabiliko dituzte.
- Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara behintzat erabili beharko du ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Zaldibiako Udalaren Euskararen Erabilera Plana, gainerako araudia eta Zaldibiako herriaren errealitate soziolinguistikoa.

- Ekintzei lotutako publizitatean Zaldibiako Udalaren babesletza adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz.

9. *Baldintzak ez betetzea.*

Dirulaguntza eman ahal izateko ezarri diren baldintzetakoren bat ez dela bete egiaztatzen bada, jasotakoa itzultzea ekarriko du legez dagokion interesekin batera.

10. *Erabakia.*

1. Eskaerak ezarritako epean jasoko dira.
2. Kultura Zerbitzuko teknikariek, eskariak ebaluatu ondoren, ebazpen proposamen bat egingo dute.
3. Ondoren, alkateak ebatziko du. Ebazpena www.zaldibia.eus webgunean argitaratuko da.

11. *Ordainketa erak eta epeak.*

Programa honen kontura emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60a ebazpena eman eta handik 15 egunera eta gainontzeko %40a urteko memoria aurkeztu eta onartu ondoren, 15 egunera. Urteko memoria aurkezteko azken eguna 2022ko urtarrilaren 15a izango da.

12. *Klausula Gehigarria.*

Oinarri hauetan espresuki jaso gabe geratu den orori dagokionez, Zaldibiako udaleko Dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorrak xedatzen dutena beteko da.

(IV ERANSKINA)



ZALDIBIAKO
UDALA

2021IDOO0002

**BESTELAKO ERAKUNDE, ORGANISMO ETA ABARRI DIRULAGUNTZAK LORTZEKO EGINDAKO ESKAEREN
AITORPENA, EDOTA, HALAKORIK BALEGO, JASOTZEN DITUZTEN DIRULAGUNTZAREN AITORPENA**

.....jaun/andreak,
zenbakiduna,.....Elkartearen Lehendakari bezala, eta bere izenean

ARDURAZ ADIERAZTEN DUT.

..... izena duen proiektuentzat Zaldibiako udalari aparte
dirulaguntzarik

- EZ DU ESKATU
- ESKATU DU

Eskatuz gero.

ERAKUNDEA	KANTITATEA	EBATZI DA ALA EZ

Zaldibian, 2021ekoaren.....
LEHENDAKARIAK

Sinatzen du
(V. ERANSKINA)

**GIZARTE SEGURANTZAREKIKO BETEBEHARRETAN EGUNERA EGOTEAREN ETA OGASUNEKO
BETEBEHARRAK BETETZEAREN ZINPEKO AITORPENA**

.....jaun/andreak,
zenbakiduna,.....Elkartearen Lehendakari bezala, eta bere izenean

ARDURAZ ADIERAZTEN DUT.

- Elkarre hau dituen betebeharretan egunean dagoela bai Gizarte segurantzarekiko eta bai Ogasunari dagokionez.
- Elkarre honek ez du betebeharrik ez Gizarte segurantzarekin eta ez Ogasunarekin

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA1A2FC.XheT>

Santa Fe kalea, 18. 20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa) Tel: 943880357 Fax:943885043 E-posta:bulegoa@zaldibia.eus web: www.zaldibia.eus



ZALDIBIAKO
UDALA

2021IDOO0002

Zaldibian, 2021eko aren.....
LEHENDAKARIAK

Sinatzen du

Indarreko legediak ematen didan aginpidez baliaturik,

ERABAKI DUT

LEHENA: Aurrean idatzitako oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Eskerak aurkezteko deialdia zabaltzea zaldibiako web orrian iragarkia argitaratuz.

Sinatzailea	ALKATEA EZTITXU MUJIKA MARIEZKURRENA		
Kodea	B 21/0113	Udala	ZALDIBIA
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/78/AAAA1A2FC.XheT		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

